

## Euskal Autonomia Erkidegoko BPG %3,1 gehitu da 2008ko lehenengo hiruhilekoan


**Administrazio Publikoen Kontsumoaren sendotasunak (%4,9) jarduera erritmo altua mantentzen dio euskal ekonomiari.**

Euskal Autonomia Erkidegoko jardun ekonomikoak sortutako BPGak %3,1eko hazkunde errealak izan du 2008ko lehen hiruhilekoan, 2007ko denboraldi berarekin alderatuta, EUSTATEk eginiko datuen arabera. Euskal ekonomian hazkunde txikiagoa egon da (aurreko hiruhilekoaren aldean bost dezimal), baina BPGaren gehikuntza hau positibotzat jo daiteke. Izan ere, erkaketaaldiak, 2007ko lehen hiruhilekoan, %4,1eko tasa nabarmena lortu zuen.

%3,1eko hazkunde tasa honek ehuneko lau dezimaletan gainditzen du espainiar ekonomiak izandakoa (%2,7), zazpi dezimaletan EB-27rako zenbatetsitakoa (%2,4) eta sei dezimaletan AEBetako (%2,5).

Euskal BPGaren hiruhileko arteko gehikuntza, 2007ko laugarren hiruhilekotik 2008ko lehen hiruhilekora, %1,0koa da. Hiruhileko arteko aldakuntza hau %0,3koa izan da espainiar ekonomian, %0,7koa 27en Europako Batasunaren batez bestekoa eta %0,1koa Estatu Batuetako ekonomian.

### 1. grafikoa. BPG merkatu-preziotan. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuari buruzko datuak: INE. EB-27, Euro Zona-15 eta AEBko datuak: Eurostat.

**Sektore eskaintzaileen ikuspegitik**, lehen sektorearen eta zerbitzuen hazkundera batez bestekoaren gainera egon da. Industriaren eta eraikuntzaren hazkundera, berriz, motelagoa izan da.

**Industriaren sektoreak**, %1,9ko urte arteko tasarekin, BPGaren batez bestekoaren azpiko jarduera maila dauka urteko lehen hiruhileko honetan. Aurreko hiruhilekoan baino lau dezimal gutxiago hazi da.

**Eraikuntza sektoreak**, zenbait urtez BPGaren batez besteko hazkundera baino hazkunde handiagoa izan ondoren, joera hori hautsi du bigarren hiruhilekoz, %2,4ko hazkundearekin. Gainera, jardueraren barne-trasbase intentsuagoa gertatu da, eraikuntzaren azpisektoretik obra zibilaren azpisektorera.

**Zerbitzuen sektoreak** BPGarena baino tasa positiboagoa aurkeztu du, %3,6ko hazkunde globalarekin. Halere, beraren barruko jokabideak oso ezberdinak izan dira. **Merkatuko zerbitzuek** %3,0ko urte arteko hazkundera dute, BPGaren hazkunde tasaren antzekoa. **Merkatukoak ez diren zerbitzuek**, bestalde, urte hasiera aktiboa izan dute, %6,5eko urte arteko hazkundearekin. Haien ekarpena funtsezkoa da zerbitzuek izandako jarduera maila zehazteko.

Lehen sektoreak %4,6ko urte arteko aldakuntza positiboa lortu du, BPGaren gehikuntzaren gainera. Arrantza azpisektoreak nekazaritzak baino bilakaera hobea izan du. Haren tamaina txikiak eta prezioen gorabeherak hazkunde tasen izaera aldakorra eragiten dute.

#### 1. taula. BPG merkatu-preziotan. Eskaintza. Kateatutako bolumenaren indizeak. Urte arteko hazkunde tasak (\*). EAE

	2006	2007	2006				2007				2008
			I	II	III	IV	I	II	III	IV	
Nekazaritza eta arrantza	-9,8	8,0	-16,5	-7,8	-8,1	-5,3	8,2	11,5	2,0	10,8	4,6
Industria	4,9	3,8	5,6	4,6	4,8	4,6	4,9	4,6	3,7	2,3	1,9
Eraikuntza	5,1	4,0	4,8	5,3	5,1	5,0	4,5	4,4	4,3	2,9	2,4
Zerbitzuak	3,8	3,8	3,7	3,7	3,9	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2	3,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	5,3	4,3	6,7	6,1	4,9	3,6	4,0	4,2	4,8	4,4	3,6
<b>BPGda merkatuko preziotan</b>	<b>4,2</b>	<b>3,9</b>	<b>4,4</b>	<b>4,3</b>	<b>4,2</b>	<b>4,0</b>	<b>4,1</b>	<b>4,1</b>	<b>3,8</b>	<b>3,6</b>	<b>3,1</b>

(\*) *Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.*

#### Iturria: Hiruhilekoko kontu ekonomikoak. Eustat

**Eskaerari dagokionez**, hiruhileko askotan lehen aldiz, barne eskaeraren bilakaera (%3,1) BPGaren berdin-berdina da. Beraz, kanpoko saldoaren ekarpena neutroa da, eta ez negatiboa, aurreko hiruhilekoetan bezala. Horrek aldaketa nabarmena erakusten du aurreko hiruhilekoen aldean, horietan barne eskaeraren gehikuntza BPGaren bilakaera baino handiagoa baitzen, BPGaren hazkundera kanpoko saldoa kenduz.

Osagaien araberako analisia eginez gero, **etxeetako azken kontsumoko gastuak (kontsumo pribatua)** % 2,4ko hazkunde tasa dauka (aurreko hiruhilekoan baino zortzi dezimal gutxiago), barne-eskaeraren moteltasuna azaltzeko funtsezkoa dena.

**Administrazio publikoen azken kontsumoko gastuak (kontsumo publikoa)**, ondasun eta zerbitzuetako gastu publikoaren itzalpean, %4,9ko gehikuntza izan du. Haren hazkundera apur bat areagotu da aurreko hiruhilekoen aldean.

#### 2. taula. BPG merkatu-preziotan. Eskaria. Kateatutako bolumenaren indizeak. Urte arteko hazkunde tasak (\*). EAE

	2006	2007	2006				2007				2008
			I	II	III	IV	I	II	III	IV	
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	4,2	3,5	4,3	4,2	4,2	4,0	3,9	3,7	3,3	3,2	2,4
Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua	2,8	3,7	2,7	2,9	2,6	2,9	3,0	3,7	4,2	4,2	4,9
Kapital-eraketa gordina	6,0	5,9	6,1	5,9	5,9	6,1	6,6	6,6	5,8	4,5	3,6
Barne-eskaria	4,5	4,2	4,6	4,5	4,5	4,4	4,5	4,5	4,1	3,7	3,1
Guztizko esportazioak	7,5	7,1	8,0	5,4	8,2	8,3	6,5	9,0	6,5	6,6	8,3
Guztizko inportazioak	7,7	7,3	8,1	5,7	8,4	8,5	7,0	9,2	6,7	6,4	8,1
<b>BPGda merkatuko preziotan</b>	<b>4,2</b>	<b>3,9</b>	<b>4,4</b>	<b>4,3</b>	<b>4,2</b>	<b>4,0</b>	<b>4,1</b>	<b>4,1</b>	<b>3,8</b>	<b>3,6</b>	<b>3,1</b>

(\*) *Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.*

#### **Iturria: Hiruhilekoko kontu ekonomikoak. Eustat**

**Kapitalaren Eraketa Gordinak (Inbertsioa)** %3,6ko urte arteko hazkundera izan du. Eskaeraren faktorerik dinamikoenetako bat izaten jarraitzen du. Halere, hazkunde-tasa apaldu du, eraikuntzak eta ekipamenduko ondasunek bultzada txikiagoa dutelako.

**Esportazioek**, guztira, %8,3ko hazkundera izan dute, eta **inportazioek**, guztira, %8,1ekoa. Beraz, finean, gure kanpo saldoa parametro orekatuetan mantentzen da.

**Pertsonal okupatuaren** kopurua %1,7 hazi da 2007ko lehen hiruhilekoaren aldean. Aurreko hiruhilekoaren kopuruaren aldean %0,2 jaitsi da. Egitate nabarmen bat da ekonomiaren lanpostu kopuru osoa milioi bat pertsonatik gorako kopuruan mantendu dela 2008ko lehen hiruhileko honetan (1.016.063 lanpostu), laugarren hiruhilekoz jarraian. Lau sektore handiek tasa positiboak izan dituzte. Nekazaritza eta Arrantza eta Zerbitzuak nabarmendu behar ditut, haien urte arteko hazkundera batez bestekoa baino handiagoa izan baita: %2,1 eta %2,3 hurrenez hurren.

**Lurralde historikoaren araberako BPGaren** bilakaerari dagokionez, 2008ko lehenbiziko hiruhileko honetan, Bizkaiak eta Gipuzkoak, urte arteko hazkunderaren %3,2arekin eta %3,1arekin, hurrenez hurren, Araba gainditu dute. Haren hazkundera %2,8 izan da.

#### **Argibide gehiago:**

*Euskal Estatistika Erakundea*

*Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

*Tel.:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Helb. elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)*

*Harremanetarako pertsona: Javier Javier Aramburu*

*Tel.:+34-945-01 75 99 Faxa:+34-945-01 75 01*

*Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)*

*Datu-bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)*